

BIZARAINEN GOIZ BATEAN...

Mikel Ugalde

Langaitz Ikastolaren jarraipen gisa, Bigarren Mailako irakaskuntza lantzen duen ikastetxea dugu Bizarain, Don Bosco eraikin ezagunagoan kokatua. Goiz batean bertan bizi izandako esperientzia, bertan ikusi, ikasi eta bizi izandakoak alegia, kontatzera natorkizu oraingo honetan.

Xumea bezain aberatsa izan zait bertako gazteekin goiz batean izandako harremana. Gogoan hartu eta nolana ahaztuko ez zaidana.

Gonbitea

Ikasturte honen lehen hiruhilabetekoan jaso nuen Bizaraindik Bittor Hildagoren deia: "Eskolan hizkuntza normalkuntza ikasleekin landu nahian gabiltza eta zurekin egon nahi dugu, herriko azken mendeko historia gogoan, zure iritzia eman diezaguzun. Gure artera etorriko bazina...".

Deiari oso susmo ona hartu nion. Izan ere, hizkuntzarekikoa gizartearen eta herri bizitzaren historiak erakutsia gogoan hartuz burutu nahi zutela ikusten bainuen. Bestetik, gizarteak eta herriak hainbeste eman didalarik, era arruntean bederen, neronek ere niretik itzultzea bidezkoa zela ikusten bainuen.

Horrela, beraz, ondorengo harremanetan, otsailean bertara joan eta DBHko hirugarren mailako neska-mutilekin biltzekotan gelditu ginen.

Bizarainen

Aurrez erabaki bezala, astelehen goiz batean bertaratu nintzen. Ilusioz abiatu bai, baina, aldi berean, urduri ere bai. Urruti gelditzen zitzaidan irakasle lanetan jardun ohi nueneko garaia. Ikastetxera iritsitakoan, Marina eta Bittor irakasleak agurtu nituen eta berehalakoan aurkitu nintzen gazteekin ikasgelan.

Ez genuen elkar ezagutzen. Ez nengoen hamabost urte inguruko gazteekin biltzen ohitua. Legezko aurkezpenak egin eta gero, ekin genion elkarrizketari maila bereko hiru ikasgeletan.

Laburbilduz, oso saio gogoangarriak izan ziren. Ikasleek, batzuek motibatuagoak noski, gizalegez hartu ninduten eta gozo eta eroso sentitu nintzen...

Ikaskizunak

Kontaketa laburtuz, ikaskizun gertatu zitzaizkidan egoerak bururatu zitzaizkidan. Nire baitan galderak ugariagoak ziren erantzunak baino:

- **Ikasleen izaeraz.** Hemendik hogeitertara gure herrian ardura eta eragina izango duten ikasleen aurrean nengoen.

Gaur egun zenbaitetan aintzat hartzen ez ditugun gazteak bihar-etzi herri honen gidariak izan daitezkeela pentsatzeak egungo hezibidearekin asmatzen ari ote garen galdera sortarazten zidan une horretan.

- **Zubi lanaren beharra.** Gure herrian azken mendean gertaturikoak kontatzerakoan zaharkitutako munduaz ari nintzela iruditzen zitzaidan. Urruti sentitzen ote ninduten susmoa hartu nuen. Zubi lanaren premia nabaritu nuen, erretenak gainditu beharra, etxean,

eskolan, gizartean, gure herrian... halako ezinbesteko zubi lana.

- **Motibazioa.** Gogoia eta motibazioa nolako, ondorioak eta emaitzak halako. Irakasleek, pedagogian adituek eta gizarte gaietan ardurak dituztenek gazteak animatzeko, gogoia suspertzeko, motibazioa areagotzeko magia sistemarik nekez aurkitzen dute. Ez da erraza. Itsuak ere ikusten duen kontua da. Abiapuntu gisa, gaztea bere osotasunean onartzea izango litzateke. Aintzakotzat hartua, baloratua, onartua, are gehiago, maitatua, sentitzen den edonork era errazagoan landuko du motibazioa ere.
- **Elkarri entzutea.** Ez da gazteek bakarrik landu behar duten zeregina. Urtetan aurrera goazeno ere kosta egiten zaigu elkarri entzutea. Arlo horretan zer hobetua sumatzen nuen arren, oso gustura aurkitu nintzen.
- **Irakaslearen bakardadea.** Berariaz gai honetan mintzatu ez ginen arren, susmoa dut, beste hainbat

Bizaraingo ikasleak San Tomas egunean.



ikastetxetan [batuan-edo, mugagabea litzatekeenez hainbat horrekin] bezala, Bizarainen ere irakasleak aintzat hartu eta babestu behar ditugula. Familiaren, gizartearen eta eskolaren arteko elkar lana nahitaezkoa dela. Gure gizartean sortzen zaizkigun arazoak heziketak konponduko dituelakoan, eskolara jotzen da. “Eskola garaitik heldu beharko litzaioke gai honi” errepikatzen dugu, baina eskolari ezin zaio eman ezin dezakeenik eskatu.

Topikoak saihesten

Bizarainen izandako elkarrizketan hainbat topiko zalantzan jartzeko aukera izan nuen. Saioaren amaierako elkarrizketan guztietariko gaiak azaldu ziren. Etorkizunaz galdetutakoan, zenbaiten pesimismoa bistan zen. “Egoera honetan, ba al dago baikorra izateko motiborik?” erantzuten zuten.

Gai sakonagoak ere tartekatu ziren. “Mikel, heriotzari beldurrik bai al diozu?” galdetu zidan mutiko batek. “Zure eskutan balego, nola gustatuko litzaizuke bizitzea? Ume bezala, gazte moduan, adineko gisa, orain daukazun edadean...?”. Bistan da horrelako galderak egiten dituen

gazteak pentsatzeko eta hausnartzeko gaitasuna baduela. On litzakete, beraz, gazteriar buruz helduok zenbaitetan, arinegi eta oharkabean, pentsatzen eta esaten ditugunak aztertzea eta tentuz jokatzea

Azken gogoeta

Hau guztia jarraitzeko pazientzia hartu duen irakurleak beharbada beste honako galdera hau egin dezake: “Mikelek Bizarainen bizitakoa kontatu digu. Ikasleek zer esango ote ligukete”. Nik neronek ere hori galdetzen dut baina ez dut erantzunik.

Hau guztia, astelehen goiz batean... bizi izan nuen. Atea zabaldu zidaten, onartu ninduten eta ene bihotzaren txoko txiki batean Bizarain nireganatu zitzaidan.



Mikel Ugalde Bizaraingo ikasleekin.

